

BBK ERREPORTAIA LEHIAKETA

Luzianen, danetarikoak

ANTXINAKO DENDAK. Herri txiki askotan ez egoan erosketak egiteko kanpora urteteko aukerarik. Hori dala eta, taberna-dendak egoten ziran, eta danetarik saltzen eben. Zeanurin geratzen da holango denda bat

O hituta gagoz erosketak supermerkatu eta denda handietan egitera; arraindegia, okindegia, harategia eta beharrezko tegi guztiak teilatupe berean aurkitzera. Baina, hau ez da gaur goizeko moda. Aspalditik Euskal Herriko herri askotan ezagutu dira danetarikoak saltzen ziran denda horreetakoak. Horreexetakoak dogu Zeanuriko Luzianeko dendea; dendea, taberneak eta etxea be bada. «Orain ezingo litzateke holango dendarik zabaldu; baina, orduan, makina bat holango baegoan, ba».

Hirurogeita sei urte badaroz Karmelek negozioaren arduran; eta, aurretik, bere amak beste hainbeste egingo ezaban. Negozioak ehun urte baino gehiago izango dauz, Karmeleren amaren izeko-osabek zabaldu ebelako. Ugazaba asko euki dauzan negozioa izan arren, Karmeleren amaren izena hartu dau, eta zeaniztar guztiek eta arratiar askok Luziana izenetik ezagututen dabe Zeanuriko plazan dagoan taberna-dendea.

Dendea eta taberneak teilatu baten pean. Zenbat bider batu ete dira andra-gizonak; bata afalosterako frutatan, eta, bestea, etxera joan orduko azken ardaoa hartzean. Edo ogitan joaneko zenbat bueltatuko ete ziran etxera pizpirin-pizpirin. Gaur egun be, sarri batzen dira umeak meza ostean karamelotan eta ogitan joandako amak.

Saldu be danetarik egiten dau. Ogitik hasi eta frutea, pastak, karameloak, jaboia, suabizantea, tomate prijidua... eta, gabon sasoiak ailegetan danean, polborioak eta turroia be bai. Astegun baten, Zeanurira hurreratu ezkerro, han eukiko dauz, mostradore ganean, frutaz eta pastaz betetako kaxak.

Gaur egun, umeentzako txibiskeriak asko saltzen dauz, «eta astegoienetan eguerdiko 15:00ak arte ardaok be dezentetxo». Baina urte batzuk atzerago, karameloak, sardina zaharrak eta zapatu arrastietako kaskauesak ziran Luzianeko espezialidadea. «Zapatuetan kaskauesak tostau egiten nebazan, eta gero, dabak azalak lurrera bota, eta han egoten zan egote-



ENERITZ ATUTXA / IRATXE ETXEBARRIA

Lehen baino behar gixtiago dauka Karmelek; baina, oraindino be, geratu barik egoten da denda.



ENERITZ ATUTXA / IRATXE ETXEBARRIA

Arrastiko 15:00ak arte makina bat txikitero ibiltzen dira taberna-dendan.



ENERITZ ATUTXA / IRATXE ETXEBARRIA

Ezer be ez da falta Luzianean.

tik urteteko be erraz be ez. Horregaitik, guk, hemen, danetarik eukiten genduan», azaldu deusku Karmelek geure gaztetasunari lezioa emon gurean.

Estukurak

Bat eta bi baino gehiago be estukuratik atera dauz Luzian dendeak. Urte asko ez dala, neska gazte bat Zeanuriko Andra Mari jailetako erromerira joan zan abarketakaz, eta, haren dantzaldiakaz, abarketeak berea egin eban. Hasieran, holan dalakoan, baina berandua, Luziana otu jakonean, abarketa barriak erostera hurreratu zan. Hori goizaldean. Azkenean, abarketa barriak erosi barik Loctite potetxoa erosi, eta barriro dantzarako gertu egoan.

Hori anekdota bat baino ez da, baina gaur egun be pitean-pitean joaten jakoz Zeanuriko herritarrek konpresa batzuk dirala edo entsaladarako binagre barik gelditu dirala eta saltzeko erreguka.

Zabaldu, goizeko 19:30ean zabaltzen dau, panaderoa ogiakaz orduantxe joaten jakolako, «bera domeketan arean berandutxoago, goizeko 20:00etan, egunari antza emoteko».

Baina Karmelek gero eta gehiago igarten dau denda handiek egiten deusien konpetentzia. «Gero eta gitxiago saltzen da, baina guk geuk be gero eta gitxiago behar dogunez...».

Dendea beherantza badoa be taberneak bere indarra dauka. Astegoienetako txikiteroek kliente onak badira be, gazteak be ordu batzuk egiten dabez futbolinean. «Bai, badauka bere famatxoa, batez be, bariku iluntzetan gazteak erromerira joan aurretik, hor ibiltzen dira olgetan». Gaur egun, futbolina dago, baina Luzianeko billar japoniarra ezagutu dabenak oraindino be bizi dira. «Zaragozatik ekarritakoa eta eskola profesionala hemendik hurbil egoten zan, eta errekreotetan harek egiten ebezan olgetaldiak...».

KARMELE

Luzianea dendako ugazaba

«Lehen ez egoan Bilbondo-eta holangorik. Horregaitik danetarik eukiten genduan guk, geure denda»

koa! Lehenago orinalak eta lapikoak be saltzen ziran Luzianean. «Badakizu, danetik apur bat gaur eguneko supermerkatuen antzean. Lehen ez egoan Bilbondo eta holangorik, eta herri-

ENERITZ ATUTXA eta IRATXE ETXEBARRIA

25 eta 21 urte

Ikasleak

LEMOA eta IGORRE